


BOS 1922-2022

«EHUN URTEKO IBILBIDEA»

Orkestrako lehen taldeko musikariak 1922ko martxoaren 8an Armand Marsick lehen zuzendari titularraren zuzendaritzapean gure historiako lehen kontzertua interpretatzeko Arriaga Antzokiko agertokira igo zirenean, ez zuten inondik inora ere pentsatuko 100 urte geroago orkestra horren sorreraren mendeurrenaren protagonista izango zirenik.



BOS 1923an,
Armand Marsick
zuzendari
titularrarekin.

Bilboko eta Bizkaiko gizartearen bultzadari, erakundeen arteko lankidetzari eta 100 urte horiek hartzen dituzten 36.525 egunetan eszenatokira igo diren musikarien tinkotasunari esker sortu zen kultura-erakunde baten lehen urratsa izan zen, publikoaren aurrean.

Orkestrak 4.700 kontzertu baino gehiago eman ditu ordutik egunera, kontzertu horiekin batera doazen antolaketa, ikasketa-denbora, entseguak edo joan-etorriak barne. Orkestra Bilbokoa eta Bizkaikoa den aldetik, ehun urte hauetan gure gizartearen gorabeherak bizi izan dituen erakunde bati loturik dauden pertsona askoren bizitzek ari gara, azken mendeko gure historia gauzatu duten une onak eta txarrak (baita tragikoak ere) partekatuz.

Bizkaiko kulturaren munduan benetako iraultza gertatu zen garaian sortu zen BOS. Iraultza horrek Bilbon izan zuen ardatza. Garai bizi-bizia eta energiaz betea izan zen, «20ko hamarkada alaia» izenez ezagutu zena; izan ere, garai hartan eklosio ikaragarria bizi izan zen kulturaren eta artearen arloan mendebalde osoan.

Bilboko Koral Elkartea 1886tik presente zegoen Bilboko musika-eremu finkatuaren aldiaren barruan jaio ginen. Hain zuzen ere, Elkarre Filarmonikoa, 1896an sortua, nazioarteko bakarlari handientzako erreferente bilakatu zen urte horietan. Handik gutxira, 1920. Urtean, eta Elkarre Filarmonikoko bazkideen bultzadaz, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Musika Kontserbatorioa sortu zuen, Armand Marsicken zuzendaritzapean.

Harako hura Bilbon kultura-ekimenak puri-purian zeuden garaia izan zen, non «El Escritorio», «Kurding Club» izenez ere ezaguna, Hiribilduko bizitza kulturalaren buru baitzen. Kultura eta bizitza ona maite zutenen klub hartako kideen arteko

melomanoen kontzertuak eta hitzaldiak programatzen hasi ziren «El Cuartito» zeritzon lokal batean. Talde horren bultzadaren bidez, Bilboko eta Bizkaiko musika alorreko gaur arte funtsezkoak diren elementu asko ernatu ziren: «Bizkaiko Musika Akademia» (1877-1920), «Bizkaiko Musika Kontserbatorioa» bihurtu zena; «Bilboko Elkarte Filarmonikoa», eta «Bilboko Orkestra Sinfonikoa» bera.

Mathieu Crickboom musikari handiak «musikaren apostoluak» deitu zien. Izen hori, bereziki, haietariko musikaririk aktiboenei eta proiektuak bultzatzeko gaitasunik handiena zutenei eman zitzaion. Musikari horiek «musikaren hiru apostoluak» izenez ezagutzen dira Bilbon: Juan Carlos Gortazar, Javier Arisqueta eta Lope Alaña.

«Hiru apostolu» horiek izan ziren Bilbao Orkestra sinfonikoaren sorrera bultzatu zutenak. Orkestraren lehenengo titularra arestion aipatu den Armand Marsick izan zen, orduan sortu berria zen Bilboko Kontserbatorioaren zuzendaria.

Hori izan zen, hain zuzen, martxoaren 8an 100 urte betetzen duen historia honen abiagunea.

Eta hortik aurrera, orkestra honen historia guztia, ezinbestean, Bilboren eta Bizkaiaren historiarekin lotuta egon da. Orkestraren historia hori bizkaitarrei modu erakargarrian kontatzea izango da gure mendeurrenako jardueretako bat.

MENDEURRENEKO JARDUERAK

Esan bezala, sortu zenetik Orkestraren bizitza Bizkaiko bizitzarekin lotuta dago.

Azken bi urte hauetan guztiok zailtasun handiak bizi izan ditugun arren, gaur egun gure Orkestraren bizitza ospatzeko jardura sorta bat aurkezteko moduan gara. Horra hor gure iragana, oraina eta geroa.

Badakigu, eta ondo jakin ere, Bilboko eta Bizkaiko orkestra garela. Badakigu, halaber, Bilboko eta Bizkaiko herritarrei eta erakundeei zor diegula gure existentzia. Horregatik, ospakizun honek ospakizun irekia izan nahi du, eta, hainbestez, ospakizun hori lurraldeko ahalik eta pertsona gehienengana iristea da gure helburua.

Musika-jarduerak

Kontzertuak

Mendeurrenako kontzertua. Martxoak 10-11

Martxoaren 10ean, ostegunean, eta martxoaren 11n, ostiralean, mendeurrenako kontzertua eskainiko du BOSeK. Kontzertu horretan, gure orkestraren DNA nolabait laburbiltzen duten bi konpositore izango dira: Maurice Ravel eta Gustav Mahler.

Lehenengoa Maurice Ravel izango da, euskal konpositorerik eta konpositore euskaldunik ospetsuena, eta harro esan dezakegu gure orkestraren zuzendari jardun zuela 1928ko azaroaren 10ean. Euskal egile honen lanak ia hasieratik izan ditugu lagun orkestraren historian. 1924ko azaroan interpretatu genuen lehen aldiz haren obra bat: «Ma mère l'oye».

Orduz geroztik, Ravelek etengabeko presentzia izan du, ez bakarrik gure programazioan, baita gure biretan ere, bere musika harrigarria Nantesen (La Roche D'Antheron), San Petersburgoko Mariinski Antzokian, eta baita Japonian ere entzunaraziz. Jesus Guridirekin edota gure fundazioari izena ematen dion Juan Crisostomo de Arriagarekin batera, gure nortasunaren ezaugarrietako bat bilakatu da.

Bigarrena **Gustav Mahler** izan zen, BOSe 1929ko abenduan lehen aldiz interpretatu zuena. 1904ko urrian Kolonian estreinatu zen bosgarren sinfoniako 'Adagietto' aparta izan zen. Hau da, estreinatu eta 24 urtera soilik, konpositore haren musika ohiko erreperitorio sinfonikoaren parte arrunt ez zen garai batean. Ondorik, Orkestrak haren musika herri askotara eraman du, eta litekeena da herri horietan musika hori lehen aldiz zuzenean entzun izana. Esate baterako, Mahlerren Lehen Sinfonia 1962an entzun zen Orkestrak Burgos, Zamora, Valladolid, El Ferrol, Pontevedra, Vigo, Coruña, Avilés, Oviedo eta Iruñeko hirietan zehar egin zuen biran.

Bohemiako egilearen Bigarren Sinfonia interpretatuko dugu, «Berpiztea» izenez ezaguna. Benetako printzipio-adierazpena da, egun bizitzea tokatu zaigun garai korapilatsu honetan.

Oraingo honetan **Leonard Slatkin** zuzendari estatubatuar ospetsua izango da orkestraren buru. Zuzendari hori 2020ko otsailean ere gurekin izan zen, eta oroitzapen bikaina utzi zuen publikoan eta orkestran. Horrezaz gainera, **Bilboko Koral Elkartearen** ahotsa ere izango dugu, **Miren Urbietta-Vega** soprano euskaldunarekin eta **Isabelle Druet** mezzosoprano frantziarrarekin.

Egitaraua

M. Ravel: *Kaddisch, de Deux mélodies hébraïques*

G. Mahler: 2. Sinfonia, "Berpiztea"

Miren Urbietta-Vega, sopranoa

Isabelle Druet, mezzosopranoa

Bilboko Koral Elkartea

(Enrique Azurza, zuzendaria)

Leonard Slatkin, zuzendaria

Kontzertua Guggenheim Bilbao Museoa

BOSen mendeurrenarekin bat eginez, Guggenheim Bilbao Museoa ere bere 25. urteurrena ospatuko du. Ospatzeko arrazoi bikoitz horrekin, BOSe kontzertua eskainiko du Museoa, eta kontzertu handi baten eszenatokia izango da, bi erakundeek elkarrekin antolatua, eta herritarrei irekia. Kontzertu horren egitarauan, «Erakusketa bateko koadroak» lana sartuko da, hau da, Modest Mussorgskyk Viktor Hartmann lagunari omenaldia egiteko erabili zuen obra. Erakusketa hori Hartmannen heriotzaren harira egin zen. Piezak bisitariaren ibilbidea irudikatzen du, musika baliatuz, koadroz koadro, deskripzio-izaera handiko estiloarekin. Obra hori, hasieran, pianorako konposatu zen, eta musika Maurice Ravelek "koloreztatu" zuen behin betiko, orkestrazio bikain batekin.

Klasiko handi honekin batera, historiak bidegabeki tratatu duen konpositore baten lana berreskuratuko da kontzertuan (haren kide asko ere bidegabeki tratatuak izan ziren garai hartan, emakumezkoak izateagatik): Augusta Holmès frantziarra, zeinaren poema sinfonikoa, hots, lengoia trinko eta boteretsua duen "Andromeda" sinfoniaz, gozatu ahal izango duen publikoak. Arteen arteko adiskidetasuna eta elkarriketa ospatzeko aukera paregabea.

Zinema kontzertuan: Eraztunen jauna

2022ko abenduaren 15ean eta 16an, 2022-2023 abonuen denboraldiaren barruan, BOSe produkzio berezi bati ekingo dio. Emanaldi hori zeharo erakargarria izango da publiko zabal batentzat. **Eraztunen Jaunaren** jatorrizko bertsioaren kontzertua/proiektzioa (ingelesez emango da, eta euskarazko eta gaztelaniazko azpitituluak izango ditu): **Eraztunen Komunitatea. BOSe zuzenean interpretatuko du soinu-banda hori.**

Zinemako musikak gutxitan islatu du hain ondo istorio handien epika, operara eta poema sinfonikora hurbilduz. Leitmotiven baliabide wagneriarraren erabilera eredugarria da. Pertsonaia jakin batzuei lotutako musika-kantu laburrekin, Howard Shore lagun dugu bidaia honetan, eta eratzunaren bila gidatzen gaitu.

Soinu banda honekin, **Howard Shore**k sagarekin eskuratu zituen hiru Oscar sarietako lehena eraman zuen. Gandalfen neurritasuna, Mordorren gaiztakeria, Hobbiten xalotasuna, Boromir eta Aragornen indarra, Sauronen krudelkeria, elfoen arintasuna, etab. Pertsonaia guztiak maisuki deskribaturik daude orkestra-poema handi honetan, baita boterearen eratzuna ere, zeren eta, ezin baitzen bestela izan, bere musika-gai propioa baitu.

Bilboko Udal Banda eta BOS elkarrekin gure mendeurrenean

Astebete geroago, gure 2022-2023ko denboraldi sinfonikoaren barruan, Bilbao Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Udal Banda kontzertu batean elkartuko dira berriro, elkartuta egon ziren ia 20 urteak gogoratuz, mendeurreneko ekitaldiei amaiera emateko musika-egitarau berezi bat eskaintze aldera.

Bi kontzertu izango dira, abenduaren 22an (osteguna) eta 23an (ostirala), Bilbon jaio ziren bi erakunde kultural eta musikal horiek berriro elkartzeko.

Mendeurrenaren urtean estreinatuko diren obrak

Mendeurrena aukera ona da Orkestrak musika sinfonikoa osatzen duen katalogora obra berriak ekartzen lagun dezan, gure arreta Bilboko eta Bizkaiko konpositoreengan jarritz. Horretarako, gure lurraldeko hiru konpositoreen lanak estreinatuko ditu orkestrak denboraldi honetan.

Gabriel Erkorekari enkargatu zaion mendeurrenerako obra

Erik Nielsen gure zuzendari titularrak duela gutxi **Musika Sari Nazionala** irabazi duen **Gabriel Erkoreka** konpositore bilbotarrari enkargatu zaion obra baten estreinaldiarekin itxi nahi izan ditu mendeurreneko ospakizunak. Obra horren estreinaldia 2023ko martxoaren 9ko eta 10eko abonu-kontzertuetan izango da. Piano eta orkestrarako kontzertua da, eta **Alfonso Gómez** pianista gazteztarrak hartuko du parte bakarlari gisa.

Javier Quisilanten "Tiempo silente" obraren estreinaldia

Gure sortzaileekiko arreta etengabea izan da orkestraren historian. 2022ko apirilaren 28 eta 29ko denboraldiko kontzertuetan, **Javier Quisilant** bilbotar konpositorearen "Tiempo silente" izeneko obra estreinatuko dugu. Belaunaldi berriko konpositore interesgarrienetako bat da Quisilant, eta 2020an BBVA Fundazioaren Leonardo Beka irabazi zuen.

Isabel Urrutiaren "Utopías" obraren estreinaldia

2021-2022ko denboraldian, besteak beste, Ethel Smyth, Birke Bertelsmeier, Louise Farrenc eta Augusta Holmès musikagileek protagonismoa izan zuten; emakumeen presentzia horri dagokionez, Isabel Urrutia konpositore getxotarraren «Utopías» izeneko obraren interpretazioarekin hasi zen denboraldi hori. Hain zuzen ere, konpositoreak pieza BOSi eskaini nahi izan zion bere mendeurrenean.

Andres Isasiren poema sinfonikoen edizioa eta interpretazioa

Bizkaiko musika-ondareari ematen zaion arretari doakionez, Andrés Isasiren 4 poema sinfonikoren edizio berria sustatu du BOSeK, Ángel Brizek egina eta Erik Nielsenek gainbegiratua. Horiek guztiak mendeurreneko bi denboraldietan interpretatuko dira, "Orakel" eta "Erotische Dichtung" 21-22ko denboraldian, eta "Zharufa" eta "Die Sünde", berriz, 22-23ko denboraldian.

Hedapen-jarduerak

Hitzaldi-zikloa

Deustuko Unibertsitatea

BOSen kontzertu-denboraldiari edo mendeurrenari lotuta dauden interpreteek eta espezialistek hitzaldi-egitarau batean parte hartuko dute Deustuko Unibertsitatean. Hitzaldi-egitarau hori Orkestrak eta Unibertsitateak antolatzen dute elkarrekin.

Eguna	Hizlariak	Gaia
21/12/14	Amancio Prada , kantugilea Víctor Pablo Pérez , zuzendaria Iñaki Moreno , irakaslea	" <i>Cántico Espiritual</i> " BOSen
22/02/02	Gabriela Montero , piano-jolea	Emakumea musikan. Clara Schumann-etik gaur arte
22/03/01	Fernando Bayón , Deustuko Unibertsitateko Aisialdi Ikasketen Institutuko zuzendaria	Esnatzearen musika: berpiztearen gaia Wagnerren eta Mahlerren musiketan
22/03/22	Maite Aurrekoetxea , J.C. Arriaga Kontserbatorioko zuzendaria Miren Iñarga , MUSIKENeko zuzendaria	XXI. mendeko musikariaren prestakuntza
22/05/03	Jorge de Persia , ikertzailea eta musika kritikaria	Orkestra sinfonikoa Historia eta bilakaera
22/05/24	Luis Gago , editorea eta musika kritikaria	Orkestrarako kontzertua XX. mendeko sorkuntza gisa

Guggenheim Bilbao. Sormen prozesua

BOSen kontzertu-denboraldian parte hartzen duten konpositoreak **Guggenheim Bilbao** Museoko Auditoriumera joango dira beren sormen-prozesuaren gakoak oinarri hartuta, beren obrak interpretatzen diren astean. BOSen 100. urteurreneko eta Guggenheim Museoaren 25. urteurreneko lankidetza da, TopARTE izeneko egitarauaren barruan.

Eguna	Artista	Oharrak
21/12/01	Ethel Smythen inguruan Patricia Sojo , musikologoa	Bilboko Orkestra Sinfonikoaren denboraldi berriaren barruan « <i>On the Cliffs of Cornwall</i> » izeneko obraren interpretazioa dela eta, Patricia Sojo musikologoak Ethel Smyth konpositorearen figura eta estiloaren erretratua eskaintzen digu, musikaren munduan ez ezik, XX. mende hasierako aktibismo politikoan eta mugimendu sufragista ingelesean ere berebiziko garrantzia duen figuraren inguruan.
22/01/12	Birke Bertelsmeier , konpositorea Erik Nielsen , BOSeko zuzendari titularra	2017an, Gernikako bonbardaketan inspiratutako Birke Bertelsmaier konpositore gaztearen (Siemens 2015 saria) lan zirrargarria estreinatu zen Bilbon. Orain, lau urte geroago, musikagile honen sormen prozesuaz hitz egiteko aukera izango dugu berarekin, BOSen denboraldian eskainiko digun obra berriaren interpretazioa dela eta. Mahaian orkestraren zuzendari titularra den eta haren musikaren miresle handia den Erik Nielsen izango du lagun. Borja Pujol izango da aurkezlea.
22/02/15	Isabel Urrutia , konpositorea	Isabel Urrutia konpositore bizkaitarrak Borja Pujol BOSeko zuzendari teknikoarekin hitz egingo du orkestrarako sortu berri duen « <i>Utopías</i> » izeneko obraren konposizio-prozesuaz. Obra horretan, Urrutiak ganbera-taldetxoetan zatikatzen du orkestra, eta talde horiek modu lokabeen edo taldean jarduten dute emanaldian zehar. Isabel Urrutiak 'World Timbres Mixtures' konposizio-metodo berria sortu zuen JL Campanarekin batera, eta, horri dagokionez, munduko instrumentu herrikoien soinua gehitu zien orkestra klasikoei.
22/04/27	Javier Quisilant , konpositorea José Luis Besada , Radio Clásicako "Música Viva" saioko aurkezlea.	BOSen kontzertu-denboraldian « <i>Tiempo Silente</i> » izeneko obraren estreinaldia dela eta, Javier Quisilant bilbotar konpositoreak, BBVA Fundazioaren Leonardo Beka irabazi berri duenak, José Luis Besada musikologo eta dibulgatzailearekin hitz egingo du bere obra sinfoniko berriaz eta, oro har, bere sormen-prozesuaren gakoez.

BOSen mendeurrenari buruzko komikia

Irailerako **Kike Infame (Enrique Martínez-Inchausti Portu)** marrazkilaria egiten ari den komikia izango dugu prest.

Kike Infamek hainbat argitaletxerekin lan egin du, barbarako, Astiberri («*El hombre que vino del cielo*»), Dolmen («*Corina y el pistolero*», «*Quattrocento*») eta Dibbuks («*Resistencia*») argitaletxeekin.

Gaur egun, Señor Verde gidoilariarekin batera, bere proiekturik pertsonalena garatzen ari da: «*Morirse en Bilbao*». Bere azken komikia, «*Conexión Abierta*», Caritasen Namasté taldearekin batera egin du. 2017tik 'Bilbao' egunkariarekin kolaboratzen du.

Teoriko gisa, honako liburu hauek idatzi ditu: «*Komikia, el cómic vasco desde 1975*» Mikel Begoñarekin, «*Irudigileak, la ilustración en Bizkaia*» liburua Alex Oviedorekin batera; azken honekin, «*Carteles de Bizkaia*» izeneko liburua prestatzen ari da.



Kike Infameren bineta.

Hiriko artea. «Mendeurreneko horma-irudia».

Hiri-artean aditua den **Pablo Astrain** margolariak BOSen historia kontatuko du Jesusen Bihotzetik abiatzen den eta Olabeaga auzoko sarbidean dagoen ehun metrotik gorako horman.



BOSen mendeurreneko horma-irudiaren kokagunea

Pablo Astrain, Donostian jaioa eta Algortan hazia, graffitiaren bidez hurbildu zen pinturara. Horren ondorioz, Arte Ederretako karrera egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Berlingo HTWn osatu zituen ikasketak. Gaur egun, pinturaren arloko lan «tradizionala» eta munduan zehar horma-artista gisa egiten duen lana uztartzen ditu.

Artista honen obraren ezaugarri nagusia kaleko artearen eragina da, kaleko arte horrek berak «hiperrealismo narratibo» gisa definitzen duen estiloa lantzerakoan baitu.



Pablo Astrainek 2021eko azaroan Riobamban (Ekuador) egindako horma-irudia, 'Festival Nuevo Mural' izeneko jaialdiaren bosgarren edizioan parte hartu zuenean.

ONCEren kupoia, mendeurrenari eskainia

Datorren martxoaren 9an, ONCEren kupoia Bilboko Orkestra Sinfonikoaren ehun urteei eskainia egongo da. Martxoaren 4an, ostiralean, ONCEren eskutik aurkeztuko dugu kupoia BOSen egoitzan.

«BOSen mendeurrena» deritzon erakusketa ibiltaria

Lehen kontzertuaren 100 urteak direla eta, BOSek erakusketa ibiltari bat prestatu du, Bizkaian zehar Orkestraren historia zabaltze aldera. Erakusketan hainbat "ate" egongo dira, Orkestraren historiako etapa desberdinei bidea irekitzen joango zaizkigunak; izan ere, Orkestraren historia Bilboko eta Bizkaiko historiaren ondorioa besterik ez da.

Erakusketa honek Bizkaia zeharkatuko du, 8 herritan izango baita. Ibilbidea Arriaga Antzokiko plazan hasiko da, martxoaren 17an, eta, ondorik, beste zazpi herri zeharkatuko ditu, herri bat Bizkaiko eskualde bakoitzeko. Ibilbidea irailean amaituko da, Urduñako hiria bisitatuz.

Kokagune bakoitzean izango den erakusketak inaugurazio berezi bat izango du, BOSeko ganbera-talde batek hartuko baitu parte erakusketa bakoitzean.

HERRIAK	ERAKUSKETAREN EGUNA	ERAKUSKETAREN KOKAGUNEA	KONTZERTUAREN KOKAGUNEA
BILBO	Martxoak 17 - Martxoak 30	Arriaga plaza	Arriagako Hall-a
GETXO	Martxoak 31 - Apirilak 10	Zubia Plaza	Andrés Isasi
BARAKALDO	Apirilak 21 - Maiatzak 5	Herriko Plaza	ISZ erakusketa-aretoa
DURANGO	Maiatzak 6 - Maiatzak 18	Bartolome Ertzilla- Kontserbatorio eta Musika Eskola	Bartolome Ertzilla- Kontserbatorio eta Musika Eskola
MARKINA-XEMEIN	Maiatzak 19 - Ekainak 18	Goiko Portala Kalea	Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
BERMEO	Ekainak 2 - Ekainak 12	Lamera Parkea	Nestor Basterretxea Aretoa
BALMASEDA	Uztailak 1 - Uztailak 10	San Severino Plaza	Klaret Antzokia
URDUÑA	Irailak 8 – Irailak 18	Foru Plaza	Familia Santuaren eliza (San Joan)

Arriaga Antzokiko lehen kontzertuaren mendeurreneko plaka

Bilboko Arriaga Antzokiaren plazan egingo den lehen erakusketaren inaugurazioarekin batera, BOSen lehen kontzertua oroitzeko plaka bat jarriko da agerian. Kontzertu hori 1922ko martxoaren 8an eman zen antzoki horretan. Harrezkero, Bilboko Orkestra Sinfonikoa 4.700 kontzertu baino gehiago eskaini ditu.

BOS

Bilbao Orkestra Sinfonikoa Euskal Autonomia Erkidegoko orkestrarik zaharrena da. 1922ko martxoaren 8an eman zuen lehen kontzertua, eta ordutik, Gerra Zibilean bi urtez isilean egon ondoren, bere jarduerari eutsi dio etengabe.

Sortu zenetik, zuzendari titular izan ditu Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara, Juanjo Mena, Günter Neuhold eta, 2015etik egunera, Erik Nielsen.

BOSek Bilboko Euskalduna Jauregian du egoitza 1999tik, eta bertan garatzen ditu bere denboraldi sinfonikoa eta kamera-denboraldia, jarduera didaktiko eta sozialez gain.



Bilbao Orkestra Sinfonikoa Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioak kudeatzen du. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak helburu horrekin sortutako irabazi-asmorik gabeko erakundea da, iraupen mugagabekoa.

BOSen jarduera bere zale ugarien laguntzari eta bere babesleen (Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren) ekarpenei esker garatzen da.

